



**Arartekoaren ebazpena, abenduaren 19koa. Horren bidez Gasteizko Udalari gomendatzen zaio bide publikoan mahaitxoak jartzeko lizentzia baliogabetu dezan eta erabilera hori dagokion udal ordenantza bidez arautu dezan.**

### Aurrekariak

1. Erakunde honetan Gasteizko alde zaharreko (...) kaleko 10. zenbakian bizi den herritarrak egindako kexa-idazkia jaso dugu. Bertan, bere etxebizitzaren etxabearen kokatuta dagoen (...) tabernaren funtzionamenduak bere etxebizitzan eragiten dituen kalte larriak salatzen zituen.

Zehazki, establezimendu horrek bide publikoaren okupazio ilegala egiten duela adierazten zuen, mahaitxoak (tamaina txikiko eta oin bakarreko mahaiak) kokatzen baitzituen horretarako inolako baimenik izan gabe eta inguruko auzokideei zarata eta zikintasun kalte larriak eraginez, portaletan sartzeko oztopo izateaz gain; horregatik guztiarengatik auzokideen eta lokaleko bezeroen arteko istiluak sortu dira.

Bestalde, ez zegoen inondik eta inora ados lokalaren alboko bide publikoan egiten diren hainbat festa eta inauguraziorekin, kanpoaldean bozgorailuak eta musika tresnak jartzen baitituzte inolako baimenik gabe.

Udalan eta udaltzaingoan hainbat erreklamazio aurkeztu ondoren, aldeko inolako emaitzarik jaso gabe, Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen.

2. Kexa behar bezala izapidetze aldera, 2011ko uztailaren 12an horri buruzko informazioa eskatu zitzaion Gasteizko Udalari, zehazki gai hauen inguruan:
  - Lokalaren titularrak bide publikoan ezarritako mahaitxoek udalaren aginduzko baimenik ote zuten.
  - Hala balitz, zer nolako kontrol eta ikuskapen neurri bideratu ziren terraza behar bezala kokatuta zegoela egiaztatzeko.
  - Lokal horretan egiten diren festek dagokien udalaren baimenik ote zuten eta, hala balitz, inguruko auzokideekiko kalteak saihesteko neurriren bat hartu ote zen.
  - Establezimenduaren jabearen aurka zehapen espedienterik zabaldu den.
3. Abuztuaren 17an egindako eskaerari erantzunez, Gasteizko udalak Ingurumen Saileko Zuzendariak egindako txostena bidali zigun, ondokoa adieraziz:





Bide Publikoko Zerbitzuaren Kontseilari Ordezkararen 2009ko urriaren 14ko ebazpen bidez, jardueraren titularrari 4 mahaitxo kokatzeko baimena eman zitzaion *“en una fila adosados a la fachada del local, siendo como máximo 2 veladores los que se colocarán en la fachada de la calle (...)”*

Txostenak, ondoren, zera onartzen zuen:

*“En reiteradas ocasiones se ha informado por parte de la policía local del incumplimiento de la licencia de ocupación de vía pública, sobrepasando el número de veladores autorizados. Por parte del servicio de Vía Pública se ha requerido al titular del Bar (...) para que proceda a la colocación de los veladores con arreglo a la licencia concedida.*

*En cuanto a las fiestas, inauguraciones y conciertos por parte del servicio de Vía Pública, no se autorizan estas celebraciones en la vía pública”*

Informazio hau ikusita eta kexa egin dutenek alegatutako gainerako inguruabarrak kontuan hartuta, eta edukiak aztertu ondoren, hona hemen ondoko

### Oharbideak

1. Mahaiak eta aulkiak jartzeko baimenaren titulartasunaren aldaketa *“jabari publikoaren”* okupazioaren bidez, Gasteizko Udalak eman zuen 2009ko urriaren 14an Tokiko Korporazioen Ondasunen Araudiaren 77. artikulua babesean. Horren arabera, baimena emateko jabariaren izaera, erabilera publikoan eraginak sortu eta hura handituko dela eta oro har ezarri beharreko gainerako arauak bete beharko direla aintzat hartu behar da, hau da, horiekin lotutako araudia bete beharko da.
2. Kasu honetan, egia esan, jardueraren aurreko titularrek dagoeneko zuten lizentziaren titulartasun aldaketaren eskaera zen.
3. Gasteizko Udalak ez du bide publikoan mahaiak eta aulkiak ezartzea arautzen duen ordenantzarik, beraz, kasu honetan aitortutako lizentziari emandako erabilera zuzenbidera egokitzen den erabakitzeko lizentziaren titulartasun aldaketaren baimenean bertan ezarritako baldintzetara mugatu behar gara. Zentzu horretan, lizentziak zera ezartzen du bere lehen atalean *“La autorización tendrá carácter discrecional y de precario, pudiendo ser anulada por incumplimiento de las obligaciones establecidas y siempre que el Ayuntamiento lo estime conveniente, sin que ello dé lugar a indemnización alguna.”* Zehazki, lizentziak zioen mahai errenkada bakarra jarriko zela, beren aulkiekin, eta horrek ezin zezakeela establezimenduaren fatxadaren luzera gainditu.
4. Lizentziaren 9. baldintzak zera ezartzen du *“Las licencias quedarán automáticamente anuladas por incumplimiento de cualquiera de las obligaciones impuestas en el presente decreto y en especial las siguientes:*



a) Instalación de un número de mesas mayor que el permitido.

5. Udalak zein erakunde honek kaltetutako auzokideek eskaintako lizentzian ezarritako baldintza hori sistematikoki urratu dela bermatzen duen dokumentazio grafikoa dute.
6. Era berean, dagoeneko azaldu dugun moduan, espedientean zera agertzen da: “Udaltzainak hainbatetan jakinarazi du bide publikoa okupatzeko lizentzia urratu dela, baimendutako mahaitxo kopurua gainditu baita.”
7. Lizentzia behin eta berriro urratu bada ere, ez dugu jakin Gasteizko Udalak inolako zigortzeko espedienterik hasi duenik, ez baitu mahaitxoak arautzeko ordenantzarik besteak beste bertan biltzen diren aginduen urratzei ezarri beharreko zigorrak arautzen dituen; horrek, hala ere, ez luke eragingo, hizpide dugun lizentzian ezarritako baldintzen oinarrian, hura atzera botatzea.
8. Nolanahi ere, gero eta hedatuago dagoen bide publikoaren erabilera hori al bait lasterren arautzea gomendagarria dirudi, batez ere ostalaritza lokaletan tabakoa kontsumitzea debekatzen duen araudia indarrean sartu denetik, eta horretarako, tokiko gobernua modernizatzeko neurriak arautzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak eragin zuen legezko gaikuntza aipatu beharra dago. Zehazki, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 139. artikulua berriak zehazten duenez, toki-intereseko elkarbizitza-harremanak eta beren zerbitzuen, ekipamenduen, azpiegituren, instalazioen eta espazio publikoen erabilera egoki antolatzeko, toki-erakundeek arloan berariazko araudirik egon ezik, arau-hausteen sailkapena finkatu ahal izango dute, baita zehapenak ezarri ere, kasuan kasuko ordenantzetan jasotako eginbeharrak, debekuak zein murrizpenak ez betetzeagatik.
9. Une honetan ez genuke gogora ekarri behar izango ostalaritzako jarduerak - hizpide duguna bezalakoek- lokal horien inguruan bizi diren pertsonen bizi kalitatean eragina izan dezaketela eta izaten dutela, eta soinu kutsadurak, zehazki, konstituzioaren 15. artikulua 18. artikulua 1. eta 2. atalek onartzen dituzten oinarrizko eskubideetan eragin zuzena dutela (RCL 1978, 2836) Auzitegi Konstituzionalak horien inguruan egin duen interpretazioan, zehazki 119/2001 Epaiaren (RTC 2001, 119) eta ondoren 16/2004an (RTC 2004, 16), Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Giza Eskubideen Europako Konbentzioaren 8. artikulua bizitza pribatuarekiko eskubidearen inguruan emandako jurisprudentziaren arabera (RCL 1979, 2421) 1994ko abenduaren 9ko Epaitik aurrera (Lopez Ostra Espainiako Erreinuaren aurkako kasua) (GEEA 1994, 3), horren ondorengoekin batera, 1998ko otsailaren 19koa (Guerra eta besteak Italiaren aurka) (GEEA 1998, 2) eta 2003ko uztailaren 8koa (Hatton eta besteak Erresuma Batuen aurka) (GEEA 2003, 40).
10. Zentzu horretan, udalek bermatu behar dute baimendu dituzten jarduerak dagokien lizentzian ezarritako baldintzetara egokitzen direla, hainbestearino non





lizentzia duten jardueren kontrolari dagokionez eskumena duten administrazioen jardute ezak, besteak beste, administrazio zein zigor mailako erantzukizunak sor ditzakeela autoritate eta funtzionarioentzat. Izan ere, administrazioen jarduera ezak bere eskumenen erabileran sortzen duen kaltea herritarrek instituzioekiko izango duten sinesgarritasunaren eta horiek merezi duten konfiantzaren galerak osatzen du, izan ere, legearen zaintzaile gisa, behartuta dauden lehenak dira, eta galera horrek ondorio suntsitzaileak izan ditzake herritarrengan, hain zuzen ere, zuzenbidearen estatua finkatzeko, herritarrek sinetsi behar baitute erakundeek legearen arabera jarduten dutela eta, beraz, arautik urruntzen dena behar bezalako zigorra jasotzen duela urratutako konfiantza hori berrezartzeko aldera. (Zentzu horretan, 2011ko maiatzaren 22ko Auzitegi Gorenaren Epaia).

Hori guztia dela-eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11. b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, honako gomendio hau egiten dut:

#### **56/2011 GOMENDIOA, abenduaren 21ekoa, Gasteizko Udalari egina**

Interesdunaren entzunaldiaren ondoren "(...)"ri bide publikoan mahaitxoak kokatzeko eskainitako lizentzia bertan behera utz dadin bertan bildutako baldintzak behin eta berriro urratzeagatik.

Albait lasterren Gasteizko Udalak bide publikoan mahaitxoak, terrazak, etab. kokatzea arautzen duen udal ordenantza onartzeko izapidea has dezan.

Gomendio hau kontuan hartuko dela espero dugu eta, idazki honi emango diozun erantzuna 15 eguneko epean izango dugulakoan, jaso ezazu gure agurra.

